

Errealismo sozialista


**Ainara Arranz, Ana Revuelta,
Oihane Herrera eta Mattalen Peinado
EHUko Artearen Historia ikasleak**

1. Abangoardiak

XIX. mende bukaera eta XX. mendeko lehenengo hamarkadetan aurreko guztiarekiko haustura gertatu zen arte mailan. Herriak jasaten zituen aldaketek eraginda, arteak ere, mundua eraldatzeko nahi horretan, dinamismo handiko papera beteko zuen. Berreraiketaren ideia horiekin batera, beraz, arteak aurretik ezarritakoarekin apurtuko zuen.

Artea ideia politikoei lotua zegoen jada (bizitzatik eta bizitzarako burututakoa den heinean), eta militar terminoak ere erabiliko ziren hau izendatzeko, honela urte hauetan egindako artea, abangoardiako artea bezala ezaguna izango zen.

Garai honetako garapen zientifikoenganako konfiantza itsuan murgildurik, garaiko gizarteak bizitzaren berreraiketari sinesten zuen. Dena zen posiblea eta arteak ere bizitza aldatzeko ahalmena izango zuen bere gain.



A. Deinekaren "hondamendiaren aurkako borroka", 1919.

Abangoardiako artea Errusian agerturiko kultura esperimantal bat izan zen, 1910 eta 1930 hamarkaden artean garatu zena. Hala ere, garai honetan, mugimendu hau bestelako izen batez ere ezagutuko zuten. Kritikariak *Ezkerretako artea* izendatzen zuten, non hainbat korrante sartzen ziren: *Primitibismoa*, *Futurismoa*, *Suprematismoa*, *Kubismoa* eta *Konstruktibismoa* (azken bi hauek artearen historian paper garrantzitsua izango zutelarik).

Arte errusiarrak nortasun handia zuen, artistek euren nortasun nazionala finkatu eta adierazteko zuten nahi eta joeragatik alegia. Inspirazio iturriak errusiar sustrai eta ohituretatik hartu zituzten, ikono erlijioso errusiarretatik. Ordura arte mundu osoak Europara begiratzen zuen, mendebaldean eginikoak nazio guztietan eragina zuelarik. Hala ere, artista askok, mendebaldeko arteari buruz dena ikasia izatean eta honek gehiago eskaintzen ez ziela ikusirik, norberaren herriko artea aztertzeari ekin zioten.

"Ezkerreko" margolari hauek, indarrean zegoenaren ezeztapenean finkatzen ziren. Horrela, inspirazio iturria, Asia, Afrika edota Polinesia arte primitiboan bilatu zuten. Garai honetan, aurretik indarrean egondako mendebaldeko gizartea kutsatua zegoela pentsatzen hasi ziren, aurrerapen guzti horiek gizakiaren gaizkia areagotzen zutela azpimarratuz eta teknologia gizakiaren kontra bueltatuko zela baieztatuz. Ondorioz mendebaldeko pentsaeraren kutsaduratik libre zegoen ikuslegoa aurkitu nahi zuten, puruagoa izanik akademizismoaren jokoan eroriko ez zena.

'*Diamanteen Jota*' izeneko elkarte artistikoa bezalako erakundeek eginiko artean, giza eta kultur errealitatek at kokatutako ideologi bat kaleratzen da. Hala ere, 1905 eta 1917 bitarteko garai horren izpirituekin identifikatuak sentitzen ziren. Denbora gehiena esperimendazioan ematen zuten. Artista hauek garaiko figurarik ausart eta apurkorrenak izan ziren.

Esperimentuen munduan hainbeste murgilduko ez zirenen artean Koncharovski, Mashkov, Altmaw... aurkitzen ziren, etorkizuneko Errusian arte mailan lan gehien jorratuko zutenen taldea. Ordura arte bigarren maila batean kokatutako hauek, oharkabean laudorioak jaso zituzten arlo artistikoan; arte iraultzaile bezala aurkeztutako artistak berriz, korrante onartu eta ofizialek at geratzen ziren bitartean.

Garaiko arte errusiarrak hiru aldi biziko ditu: iraultza aurreko garaia (abangoardiak), bitartekoa eta ostekoa (errealismo sozialista). Erregimenak ardatz finko batzuk ezarri zituen, ekoizpen artistikoa mugatuz eta artea bere onurarako erabiliz. Beraz, garai eta egoera bakoitzaren arabera funtzio ezberdinak egongo ziren indarrean.

XIX. mende bukaeran, iraultza aurretik, Errusiak Malevich, Kandinsky eta Chagall margolari ospetsuak ekoitzi zituen. Hauek XX. mendeko artegile esanguratsuenetarikoen artean kokatzen dira, artearen historian muga bat ezarri zutelarik. Hauen lanetan garai hartako errusiar arteak izandako garrantzia antzeman daiteke. Izan ere, hauek, Suprematismo eta Konstruktibismo mugimenduak (mendebaldeko artean eragin handia izango zutenak) bultzatu eta arte garaikideko abstrakzioranzko joera zehaztu zuten.

1917 eta 1921 bitarteko artea ulertu ahal izateko, garaiko artista horiek, ezkerrekoak hain zuzen ere, euren burua nola ikusten zuten ulertu beharra dago. Errusiar iraultza, iraultza propio bezala ulertu zuten, hau da, euren iraultza artistikoa izango balitz bezala. Euren sortzen ari ziren arte berri horretan, kalean eta ideologian sortzen ari zen egoera eta pentsaera berriaren isla ikusten zuten. Aurreko erregimenean artista iraultzaile hauek baztertuak egon baziren, erregimen berrian, margolari ofizialak eta arte berriaren igorle izango zirela uste zuten. Uste hauek euren eskutik argitaratutako artikulua eta panfletoetan hedatuko zituzten. Idazki hauek, artistaren egitekoen artean gizartearekin harremana duten hainbat aktibitate badirela azaltzen zuten.

Ezkerreko arte honek bere etorkizuna zientzia eta teknikaren aurrerapenekin erlazionatzen zuen. Honela, abangoardietako artistek, zientziarekin harremana

izango zuten, euren artean teknikaren garapenarekin bat joango ziren printzipio estetikoak erabiliz.

Iraultzarekin errealitate berri baten itxaropena itzuliko zen. Iraultzak ate berriak irekitzen zituen jendearen bihotzetan, eta egoera hobe bateranzko begiradan kokatzen. Era berean, artistengan aldaketa bat gertatuko zen. Hasiera batean norberak bere bidea eta estilo artistikoa bilatzen zuen, besteen gaineko lehentasuna eskuratu nahian. Oraingoan berriz, ikuspegi hori aldatuta bide amankomun baterako lan egingo zuten (hor komunismoaren ideia ikus daiteke). Horrela herriarentzat lan egiten hasiko ziren benetako paper aktiboa hartuz, artea iraultzaren zerbitzura jarriz eta helburu bezala iraultzaren goraipamena zehaztuz. Hiriak eta kaleak iraultza goersten zuten eskultura, kartel, monumentu edota eraikinez beteko zituzten, artea itxura eta ingurune konkretu bat lortzeko erabiliz. Arteak erabat praktikoa izan behar zuen, hau da, funtzionala, ideia konkretuen igorpena burutzeko landua. Ideologiaz beteriko arte horrek aipamen konkretuak izango zituen, artea guztiz politizatua egongo zelarik.



*Terpsikhorov-en "Lehenengo eslogana",
1924, egun Tretyakov galerian, Moskun.*

Hala ere, kontrakotasunez beteriko egoera bat agertuko zen. Izan ere, iraultzaren onuradun eta artearen hartzaile izan behar zuena, herria alegia, egoera larrian zegoen, goseak eta gaixotasunek jota. Egoera kontraesankor honek artista ugariren ikuspuntua irauliko du, honela, garaiko artearen ordezkariak, hasiera batean iraultza goraipatu eta garai berri honetan konfidantza jarri bazuten ere, benetako errealitatea ezagutzerakoan dezepzio handia jaso zuten. Iraultza osteko

guda zibilak, gosetea, heriotzak, zigorrak eta fusilamenduak ekarri zituen, artistek behin eta berriz goraiapatutako garai ezin hobearen ideia erabat hautsiz.



A. Deineka-ren "Emulazio sozialista", 1929.

2. Errealismo sozialista

1920ko hamarkadara hurbildu ahala, ordura arteko artea baztertzen hasiko ziren. XX. mende hasieran abangoardista eta *ezkerreko arte* iraultzaile eta apurtzaile bezala ezagutzen zena, orain objektu gabeko artetzat hartuko zen. Teorikoki iraultzailea izan arren, inutila irudituko zitzaien, ez praktikoa eta ez erakargarria zelako.

Horrela lehenengo bi hamarkadetan, arazo estetiko eta artistikoaz arduratzen zen "arteagatiko arteak" lehenetasuna izango zuen arren, orain lehia gogorra jasango zuen "kaballeteko" pintura zeritzonaren partetik.

1920.urtean arte eta teknika tailerrak sortu ziren Moskun. Institutu hauetan, artistarik ospetsuenek ere egingo zuten lan. Bestalde, hainbat ikerketa esparru eta kultura elkarte bultzatuko ziren.

Hauetan artea masen kontzientziaziorako tresna bezala erabiliko zen. Honen aurrean Kandinsky-k adibidez tailerrak utzi eta Alemaniara joan zen Bauhaus eskolan irakasle gisa aritzeko, Errusian bere sormenaren esparrua mugatzen ziotela argudiatuz. Artista ospetsu honek egindakoa beste hainbat artistek ere egingo zuten.

Artista gazteek, ordea, gogo biziz onartu zuten soviatar erregimenak emandako paper berria. Ideologikoki eta emozionalki eurentzako suposatzen zuenaz aparte, lanbide ziurtatua izango zuten, horrenbesteko kartel, monumentu, edota mural eskatzen zituen gobernu horretan. Gerra osteko egoera horretan oso garrantzitsua izango zen hau.

Arte berri hau, XIX. mende bukaeran sorturiko estiloak berreskuratuz Daumier edo Toulouse Lautrec bezalako artisten lanetan oinarrituko zen. Errealismoaz ari gara hain zuzen. Kartel, Pankarta edota monumentu erraldoien bitartez hedatzen zen estilo berria. Nahi nagusia ikuslearengan eragina sortzea zen. Zoritxarrez, une konkretuetarako egiten ziren lan ez-iraunkorrak izanik, haiek burutzeko lehenago egindako bozetuak edo proiektuak soilik ailegatu zaizkigu askotan.



Tatlin-en hirugarren internazionalaren monumentua da, 1920.

Beraz, argi geratzen da arteak bereganatu zuen papera: politika eta ideologia berria goraiatzearena hain zuzen. Buruzagien exaltazioa ere egingo zen noski. Beraz emozioak manipulatu eta bultzatzen zituen. Artearen historian garai hau, "Urriko artea" bezala ezagutzen da.



Aleksandr-en "Lenin tribunan", 1929, gaur egun Moskuko historia museoan dagoena.


Arte honek bizi izan zuen prozesua aztertuz aldaketak gertatu zirela ikus daiteke. Hasieran iraultza artistikoa, iraultza politikoarekin parekatuko zen. Hala arte errealista arte akademiko eta tradizionaltzat hartzen zenez, erregimen zaharrarekin batera bukatuko zela uste zen. Lehenengo momentuan ere, iraultzako liderrek, tradizioa eta ezarritakoaren kontra zihoazen artistenganako parekotasuna sentitzen zuten.



Boris V. Ioganson eta brigada, "Lenin hirugarren kongresuan hitz egiten", 1950.

1918.ean Herriko Komisarioen kontseiluaren dekretuz Zar-aren goraipamenerako eraikitako monumentuen erabateko suntsipena agindu zen, eta Urriko iraultzari eskainitako monumentuen diseinua hasia ebatzi zen. Baina aldi berean ez zen bultzatu iraganarekiko erabateko apurketa. Kultura Ministroak ez zuen bidezkoa ikusten ordura arteko kultura eta hondare osoa ezabatzea. Horrekin nazionalismoaren ideia bultzatu nahi izan zen. Nazionalismoan herriaren arlo

guztiak maitatu, defendatu eta ahal izanez gero indartzea bilatzen delako. Hondarea babestuz, errusiar historia, kultura eta tradizioak mantenduko zituzten.



Vladimir A. Kuznetsov-en "Armada gorria 1919 urtean", 1921.
Egun Errusiako armadako museoa.

Egoera honetan margolari askok beren bide artistiko propioa jarraitu beharrean arte industrialean lan egiten hastea erabaki zuten. Hala, masei zuzenduriko artea egingo zuten, margogintza "ideologiko" gisa ezagutua, zeinetan gertakizun iraultzaileak era errealista batean islatzen zituzten.

Beste batzuk, ordea, iraultza eta haustura ideiei berri horiek abstrakzio eta abangoardietako artearen bidetik egin zitezkeela uste izan zuten. Hauek esperimentazioan arituko ziren, proletargoa klase berria izanik, honentzako lengoia berri bat sortu nahian.

Baina azken joera honek ez zuen espero zitekeen arrakasta izan. Ikuslegoak, soviatar arte berri baten oinarri gisa ikusi ordez, laborategiko saiakera bezala ikusi zuen. Beraz, bai gobernuak, bai hartzaileen jarrerak eraginda, argi geratu zen *errealismo sozialista* izan behar zela korrante ofizial berria.



Samuil Ya. Adlivankin, "tanke gidarien bisita", 1932. Jendearenganako hurbiltasuna, poza, alaitasuna nagusi da. Hala ere armak agerian daudenez tentsioa ere soma daiteke.

Artisten belaunaldi berriek errealismorako joera erakusten zuten, eta euren lanek dokumental itxura bereganatuko zuten, gertatutakoaren kronikak izango balira bezala. Halaber sinbolo eta irudi alegorikoen bidezko lanak egiten zituzten, ideologia jakin bat azalerratu nahian.



Malyutin-en "Partisanoa", 1936.
Egun Errusiako armada museoan.

Errusiar artistek Frantziako Kubismo, Italiako Futurismo edota Konstruktibismoaren kontrako jarrerak erakutsiko zituzten, Mendebaldeko Europatik ekarritako joerak zirelako. Arte guztiz errusiarra nahi zuten eta kanpo eraginetatik euren independentzia markatzeko elkarteak eratu zituzten, adibidez NOZH (Margolarien Elkarte Berria). Konstruktibismoak aurrikusitako artearen heriotzaren kontrako jarrera azaldu zuten, eta primitibismo edo arte herrikoian oinarrituta, arte industrialean murgildu ziren.

1922an *Errusia Iraultzaileko Margolarien Bilkura* eratu zen Moskun. Garaiko bizimodua islatu behar zuen arterako bidea behin betikoz ezartzea zen xedea. Elkarteko kideak "artearengatiko artea"ren guztiz kontra zeuden, eta neo-akademizismoa, arte figuratibo berriaren forman adierazi zuten.

1920ko hamarkadan, abangoardietako artistak, garai berri horietan ere euren artista papera mantentzen ahalegindu ziren, erregimen berriaren onespina lortzen saiatuz. Abangoardisten asmo honek ezusteko norabidea hartu zuen 1929 urtetik aurrera, soviatar erregimenak artearenganako interesa handituko zuenenean, propagandarako baliagarria zela ikustean.

1917tik hezkuntza eta kultura komisario izandako Lunacharski-ren ustez, gobernuak ez zuen parte hartu behar artean edota estiloetan, baina 1929an kargutik erretiratu zuten. Izatez artearen inguruko kontrola, guda zibilaren ostean hasi zen indartzen, plan ekonomiko berria (NEP) ezartzearekin batera estatu soviatarren eraikuntzan zuzenketa kulturala ere sartu behar baitzen. Gobernu berriaren iraupena planifikazioan oinarritzen hasi zenetik, kultura eta ekoizpen artistikoak ere kontrolatu beharreko arlo bihurtu ziren.

Yuri P. Annenkov-en "Trotsky", 1923.



Kasimir Malevich-en kasuan, arte institutueta parte hartzen egotetik, eta Suprematismoko eskola artistikoa sortzetik, zuzendari postua galtzera igaro zen, bere eskolak, estatuaren esanetan, ez baitzituzten ardatz egokiak garatzen. Azkenik, 1928-1932 urteen artean, bere lana burgesa eta formalista zelako salaketapean erakusketa gehiago egitea debekatu zioten. Horrela arte abstraktua onartzen ez zen garaiotara moldatuz bere estiloa eraldatzen saiatu zen, figurazio eta ohiko errealismora pasatuz.

Manipulazio hauen ondorioz, ez zen artea era naturalean garatuko, baizik tresna arrazional edo premeditatu gisa. Iraultzaren eta honen "bide zuzenaren" izenean korronte artistiko batzuk onartu eta beste batzuk baztertzeko lehia hasi zen. Korronteen arteko liskarrak, aldizkari eta argitalpenetan kaleratu ziren. Gobernu eta buruzagien iritziak eta adierazpenak aldarrikatzen ziren batzuen edo besteen aldeko onespina lortzeko.

Bihurgune nagusia, baina, 1929an gertatu zen, gobernuak benetan parte hartzea erabaki eta kulturaren gaineko boterea Stalin-en eskuetara igarotzean. Ez zuen bide artistiko bat derrigorrez ezarri, baina berak bisitatutako erakusketetan edo artista konkretuen inguruko adierazpenetan, argi geratu zen zeintzuk ziren erregimenak babesten zituen estiloak. Hau da, Stalinekin seinalatu zuen zein zen Errusia berriaren artearen "bide zuzena". Honekin batera heziketa artistikoaren sistema guztia berrantolatzeari ekin zion. Baina sistema berria ezarri aurretik, zaharra desegiteko hainbat urte behar izan zituen, ondorioz denbora luzea igaro zelarik arte eskola gabe. Ondoren Komite Zentralak, arlo bakoitzeko eskola bakarra eratu zuen: Idazle bilkura, Margolari bilkura,... Honekin, kanpoko eraginak saihestea gain, ekoizpena kontrolatzea askoz errazagoa bihurtu zen. Komunikazio bideak ere kontrolatuak edukitzean, gainera, korronte honen aldeko jarrerak aurkeztu eta herriaren onurarako egokiak zirela konbentzitzea erraza izan zen.

Bereganatu zen estilo berriaren, *errealismo kritiko* deituan, ustez gizartearen egoera islatzen zen. Lehenago klase sozial langileak koadroen protagonista izatea ezinezkoa zen, baina orain egoera larrien isilketa egiteko bide bezala erabiltzen ziren. Arteak garapen iraultzailea zekarren errealitatea azpimarratu behar zuen.



A. Deinekaren "Fabrika berriak eraikitzen", 1926 urtekoa.

Artistek euren lanetan, gazte alaiak, langileak beharren nekatuko ez balira bezala edota aurrerapen teknikoak islatuko zituzten. Baina errealismoa zeritzoten horretan ez ziren agertzen 1930. hamarkadan nekazariak erregimenaren kontra buruturiko altxamenduak, euren lurak kolektibizatzean gosez hiltzen ari zirelako. Beraz errealitatea eraldatuz edota parte bat ezkutatuz, bizitza errealetik oso urrun zegoen egoera bat islatzen zuten. Hala bada, errealismoaren ordean, gobernuak bideraturiko kontzientziario politikoa besterik ez zen izan.

Andrei A.
Mylnikov "zelai
baketsuetan", 1950.



Zhdanov buruzagi berriak horrela definitu zuen *errealismo sozialista*: "errealismoa irudikatzeke ez da errealitatea era objektibo batean islatu behar, ezta akademiako estilo hertsian margotu behar, ez; aitzitik errealitatea bere garapen iraultzailean irudikatu behar da. Eta proiektu sozialistaren arabeko bizimodu hori ere isla daiteke". Errealismo sozialistaren estiloa logikoa litzateke beraz ikuspuntu honetatik. Etorkizun sozialista oso hurbil ikusten zuten eta aurrikuspena erreala izan ez arren, ez zen utopikoa ezta guztiz irrealia ere, gertatu behar zela ziur baitzeuden.

3. Ondorioak

Errusian 1917. urtean gertatutako Iraultza sozialistak aldaketa ugari ekarri zituen. Aldaketa hauek ez ziren arlo politiko, ekonomiko eta ideologikora soilik mugatu.


Kulturaren mamia erabat eraldatuko zuten gertakariak, eta honekin batera, esparru artistiko osoa. Ordura arte emandako ekoizpen artistikoaren iraulketa ekarri.

Iraultzarekin artea herriaren garapen izpiritualaren pean jarri zen; herriaren aldarrikapen eta beharrekin era argiago batean bat egiteko asmoz. Hala bada, artea herriaren adierazpide bihurtu nahi izan zen.

Artean jazotako aldaketa hau, eta honekin eskuratuko zuen garrantzia, garai horretan kulturak izan zuen zabalkunde izugarriari esker uler daiteke soilik. Errusiaren historian lehenengo aldiz, artea, herri osoaren mobilizaziorako eta kontzientziatorako tresnarik baliagarriena bezala ulertuko zelako. Horrela arteak funtzio guztiz praktikoa bereganatu zuen.

Artearen garapen hau zuzentzen alderdi komunista egon zen. Honen parte hartzearekin bideratu baitzen dena.

Alderdia, herentzia artistikoaren arduradun egin zen. Lehenengo gauza artea herriarengana hurbiltzea zen, eta horretarako *Monumentuen Propaganda Plana*, edo bestelako ekintzak egin ziren. Denboraz agintariak gero eta esku hartze handiagoa izan zuten arteak jorratu beharreko bideetan, eta zkenean, 1929an, Stalinen esku geratu zelarik artearen gaineko kontrola, *errealismo sozialista* izeneko estiloa ezarri zen, estilo ofizial gisa.



Nikolai A. Andreev, "Lenin-en erretratua, 1921 urtekoa.